

# **FAMILIA EREDUAK ETA GIZARTE ALDAKETAK:**

## **HOMOSEXUALEN GURASOTASUNA**

### **EZTABAIDAGAI**

*2005ko abendua*

*Lege erregistroa: BI-3328-05*

*Egilea: Inmaculada Mujika*

*Euskera ikuskatzailea: Bego Montorio*

*Testuaren berrikusketa: Ana Ureta eta Amparo Villar*

*Kontzetua eta koordinazioa: ALDARTE*

*Laguntzaile: Eusko Jaurlaritza.*

#### **AURKIBIDEA**

- *Sarrera*
- *Familia, kulturaren eta gizartearen ikuspuntutik begiratuta*
- *Familiaren historia bilakaeren historia da*
- *Egokiak dira guraso homosexualek osatutako familiak neska-mutikoen garapenerako?*
- *Eta homosexualen arteko ezkontza, zer?*
- *Homosexualitatea eta familia*
- *Azken gogoetak*
- *Guraso homosexualak dituen familia baten kontakizuna*
- *Bibliografia*

## Sarrera

Familiaren definizioa ematerakoan, zerbait arbitrarioa dela esan dezakegu, afektibitate eta emozio loturak dituzten pertsonak biltzeko modu bat, gizarteak horretarako dituen moduetako bat. Baina, gaur egun, familia hoberen definitzen duen hitza, seguruen, **Aniztasuna** izango da; familiak gaur egun ez baitu esanahi bakar eta erabatekorik. *Jendearen izaera ugaria eta askotarikoa den neurrian, biltzen gaituzten familiak ere, halabeharrez, ugari eta askotarikoak izango dira.* Ikuspuntu horretatik, beraz, logikoa da familia-egitura horiek osatzen ditugun gizon-emakumeen behar eta desio aldakorretara egokitzea familia deitu izan dugun hori.

Horrela bada, gaur egun familia aipatzen dugunean, modu “naturalean” sortutako seme-alabak dituzten guraso heterosexualak baino zerbait gehiago ari gara izendatzen. Familia-egitura, dagoeneko, ez baita ez bakarra ez kolore bakarrekoa. Besteak beste hauek aipa genitzake:

- Familia nuklear klasikoa.
- Guraso homosexualek osatutako familia.
- Adopzio-familia.
- Etnia eta kultura desberdinetako gurasoak dituen familia.
- Guraso dibortziatu edo banandutakoak dituen familia.
- Lehenagoko ezkontzetatik datorren eta berrosatzen den familia.
- Harrera-familia.
- Guraso bakarreko familia.
- Seme-alabarik gabeko familia.
- Izatezko familia.
- ....

*Ikusten denez, ugariak dira familia-aukerak.*

## Familia, kulturaren eta gizartearen ikuspuntutik begiratuta

Seme-alabekin bizi diren aita batek eta ama batek osatutako familia nuklear klasikoan, hainbat elementu biltzen dira: heterosexualitatea, ugalketa, ernalketa, ezkontza, filiazioa (seme edo alabari gizon bat eta emakume bat adjudikatzea aita eta ama modura), eta etxe berean elkarrekin bizitzea. Familia-modu berriek, ordea, hautsi egiten dute elementu horien batuketa, eta jada ez da beharrezkoa denak batera gertatzea talde hori famuliatzat hartzeko. Ezkontzarik egon ez arren familia izan daiteke, edo ugalketarako sexualitaterik gabe, edo etxe berean bizi gabe.

Azter ditzagun hauetako familia-eredu batzuk:

- **Izatezko bikote heterosexualaren inguruan sortutako familia:** Era honetako sendietan, umeak, ofizialki, beraiekin bizi diren aita eta amaren seme-alabak dira, heldu bi horiek elkarrekin bizi bai baina ezkondurik egon ez arren. Eredu honetan

sexualitatea, ugalketa, ernalketa eta filiazioa agertzen dira; ez ordea ezkontza, bestelakoa baita aitaren eta amaren artean ezartzen den lotura.

- **Adopzio-familia:** Adopzio osoa gertatzen denean, hau da, aurrekorik gabeko ume batentzako gurasoak bilatzen direnean, filiazio berria ematen zaio ume horri, jatorrizko (odolezko) filiazioa ordezkatzeko duena. Eredu honetan lotura biologikorik gabeko filiazioa onartzen da (ernalketarik gabekoa).
- **Harrera-familia:** Eredu honek are nabarmenago jartzen du kolokan ohiko senidetasun-eskema, seme edo alaba ez baita bere heziketaz arduratzen diren pertsonengandik sortua, eta ez du haiekiko lotura juridikorik. Alabaina, harrera-gurasoen eta hartutako seme-alaben artean sortzen diren afektibitate loturak, maiz, juridikoki onartutako guraso eta seme-alaben artekoen oso antzekoak izaten dira. Eredu honetan umeek, ofizialki, jatorrizko familiarekiko senidetasuna gordetzen dute, eta filiazioa ez da harrera-gurasoekiko ezartzen.
- **Guraso homosexualek osatutako familia:** Bi aita edo bi ama homosexualek osatutakoa. Eredu honetan hautsi egiten da "sexualitatea-ugalketa" lotura, bai eta guraso bakoitza sexu batekoa izateko beharra. Gordetzen diren elementuak hauek dira: ernalketa (askotan teknologia berriei esker), filiazioa eta ezkontzak edo izatezko bikoteak ezartzen duen ituna.

### **Familiaren historia bilakaeren historia da**

Familia kontzeptuak azken 30 urteotan izan duen aldaketarik nagusia familia ulertu eta bizitzeko bestelako moduak gero eta gehiago onartzea eta onestea izan da. Horixe gertatu da adopzio-familien kasuan, harrera-familienetan, berrosatutakoetan nahiz guraso barrekoetan, bai gizarteak bai legeek apurka-apurka onespina eta zilegitasuna eman baitiete. Era beran, familia-egitura berriak azaldu dira, besteak beste, guraso homosexualek osatutako familiak.

Azken hiru hamarkadatan, familiak osatzeko moduan eragin zuzena duten hainbat aldaketa gertatu dira:

- **Legerian:** Gizonek eta emakumeek esparru publikoan ez eze etxeko esparru pribatuan ere berdintasuna eskuratzea helburu duten hainbat lege abiarazi dira. Besteak beste: guraso-agintearen eskubideak aldatu dituzten legeak, edo eta seme-alabek legearen aurrean dituzten eskubideak berdintzen dituztenak, ezkontzaren baitan sortutakoak diren ala ez, adoptatuak diren ala ez kontuan hartu gabe. Dibortzioaren legea, 1981ean onartutakoa, zeinaren ondorioz ezkontzak utzi baitzion hautsi ezineko lotura izateari. Biolentzia sexistaren aurkako legeak ere badaude...
- **Gizartean eta ekonomian:** Ezkontideen araupetze ekonomikoak: irabazpideko araubidea, ondasun banantzea eta partaidetza.

- **Demografian:** Ugalkortasun tasak txikitu egin dira eta gero eta urte gehiagoz bizi garenez, denbora luzeagoan bizi dira elkarrekin belaunaldi desberdinetako senideak (seme-alabak luzaroago bizi dira gurasoekin eta adineko pertsonak luzaroago bizi dira etxebizitza independenteetan). Seme-alabak sortzeko batezbesteko adina atzeratu egin da. Beste alde batetik, gainera, gurean ia desagerturik zeuden familia-moduak berriro dituzte migrazio-prozesuek; esaterako, familia zabalak.
- **Lagundutako ernalketarako teknologia berriak agertu dira:** Horrek aukera eman du hainbat emakumek bakarrik izan ditzaten seme-alabak.
- **Emakume Feministen Mugimenduak eta Gay eta Lesbianen askapenerako Mugimenduak landutako asmo eta baloreek eragin nabarmena** izan dute giza-jarreraren aldatetan. Aipatu gizarte mugimenduek, batetik, familien barruko demokratizazioaren alde egin dute, senitarteko bakoitzak egin beharrekoa ez zedin genero edo sexu-joeraren arabera erabaki; eta bestetik, homosexualek osatutako familiak onarrarazteko borrokan jardun dute.

Azken hamarkadatan gertatu diren aldaketa hauek guztiek gure ideia, sentimendu eta jokamoldeak aldarazi dituzte, bai familiari edo ezkontzari dagokionez, bai sexualitate edo guraso izateari buruz, nola beste hainbat gaitan.

Bilakaera hauek talde eztabaida eta gogoeta ugariren emaitza izan dira, bai eta norbanakoen pixkanakako bilakaera prozesuen fruitu, jende askok egin behar izan baitio aurre hainbat bizipen familiar edo pertsonalari, hastapenetan behintzat, gatazkatsuak izan ohi direnak: Nork ez du ama bat, lagun bat, arrebaren bat, lehengusu bat, auzoko bat..., labur esanda, gertuko pertsona bat, une jakin batean honelako erabaki baten berri eman diguna: *banandu egingo naiz, lesbiana naiz eta bi seme-alaba ditut, ume bat adoptatuko dut...?* Hala ere, delako pertsona horrek lehengo garrantzi bera izango du, aurrera ere, gure afektibitate eta emozio-ingurunean.

Oro har, egoera demokratikoago, askeago eta berdinzaleagoa bizi dugula esan dezakegu, ukaezina baita asko aldatu garela familia heterosexual "normalaren" kultur estereotipoak zalantzak jartzen dituzten hainbat kontutan.

### **Egokiak dira guraso homosexualek osatutako familiak neska-mutikoen garapenerako?**

Bi gizonezko nahiz bi emakumezko osatutako bikoteek guraso lanak egiteko aukeraren -bai eta errealitatearen- aurrean, bada zenbait jende bikote horiek seme-alabak hazi eta hezteko desegoki jotzen dituen.

Eztabaida sakona piztu da bai profesionalen artean bai eta gizarte osoaren baitan, gay eta lesbianek adoptatzeko, aita-amak izateko duten/luketeen aukera dela eta. Horren harian, nahi eta nahi ez kontuan hartu beharreko zenbait puntu aipatu nahi ditugu:

*Lehena:* guraso homosexualak osatutako familiak egon badaude, gure gizartean badira horrelakoak, ez da beraz etorkizunerako aukera hutsa. Hortaz, gogoeta egin beharko genuke zer-nolako eragina izan dezaketen argudio horiek, hots, homosexualak guraso izateko desegokiak direla baieztatzen duten argudioek gaur egun horrelako familien baitan hazten ari diren neska-mutilengan; izan ere, haien aita eta ama direnek guraso izateko duten gaitasuna da kolokan jartzen dena. Erraz irudika daitezke halako usteek sor ditzaketen ondorioak: behartutako isiluneak neska-mutil horiek mugitzen diren giza-esparruetan, auto-estimua hondoratzea, agian gelakideen aldetiko tratatu txarrak...

*Bigarrena:* umeak benetan zer behar duen galdetu behar diogu gure buruari. Eta itaun horrek erantzun bakarra du: maite eta zainduko dituzten helduak behar dituzte umeek, haien beharrei erantzungo dietenak. Horrela bada, aitak eta amak heterosexual, gay edo lesbiana izateari buruzko eztabaidak ez du inolako garrantzirik umeentzat, helduei bakarrik interesatzen zaie eta urrun dago umeen benetako beharretatik.

*Hirugarrena:* Bada funtsezko rol bat zaintzailea-umea harremanean, pertsonon garapen psikologikoan erabateko garrantzia duena: atxikimendu-figura izatea. Gay eta lesbianak frogatzen ari dira atxikimendu-figura egokia gertatzen direla hazten eta hezten dituzten umeentzat, eta datu hori erabakiorra da pertsona homosexualak aita edo ama izateko gaitasuna badutela baieztatzeko.

## **Eta homosexualen arteko ezkontza, zer?**

Uztailaren 1eko 13/2005 legeak –Kode Zibila aldatzen duena ezkontzeko eskubideari dagokionean- homosexualen arteko ezkontzak onartzen ditu eta heterosexualen artekoekin erabat parekatzen.

Asko hitz egin eta idatzi da gai horri buruz; zoritxarrez, alabaina, lege aldaketa horren kontrako zenbait sektorek -bai familiak bai gizarteak oro har hondo joko dutela iragartzen dutenak- bultzatutako eztabaidaren harian egin da.

Gure ustez, ikuspuntu historikoaz aztertu behar dira era horretako eztabaidak. Denborak aurrera egin ahala, ohitu egingo gara homosexualen arteko ezkontzetara eta gure esperientziaren errealitate bat gehiago izango dira; gainera, horren inguruan sortu den alarma sozialak inolako oinarririk ez duela konturatuko gara, praktikan ikusiko baitugu lege-arauketa berriak gure bizimodua nahastu ordez erraztu egiten duela, ongizate-maila handiagoa ematen digula norbanakoei zein taldeari, beti ere elkarbizitzarako onuragarriagoa izango baita jendeari askatasun gehiago eta bere bizitzaren gaineko erabaki-ahalmen handiagoa eskaintzen dion gizarte eta lege ingurunea izatea.

*Homosexualen arteko ezkontzei esker, urte luzetan hainbat gayek eta lesbianek bizi izan duten lege-babesgabatasuna gainditu ahal izango da. Esaterako, bikoteko*

kideetako bat Europako komunitatetik kanpoko eta paperik gabekoa denean gertatzen zen egoera, ez baitzuen gure herrian geratzeko modurik. Edo, ama lesbianen kasuan, ama biologikoa ez denak pairatu behar duen egoera, legez ez baita umearen ezer ere ez, ama biologikoarekin ezkontzen ez bada\*. *Argi dago beraz, beharrezkoa dela legea, jende askok desiratu eta behar/nahi duen legea.*

Horrez gain, kontuan hartu behar da zein gizartetan onartu den homosexualen arteko ezkontza, hots, gay eta lesbianen kontrako aurreiritzi asko bizirik dituen gizartea, heterosexuala izatea homosexuala izatea baino hobea dela uste duen gizartea. Jendea hezteko eta sentsibilizatzeko neurriak hartzen ez badira, arrisku nabarmena dago homosexualen arteko ezkontza bigarren mailako ezkontzat hartzeko, benetako ezkontzaren imitazio edo fikzioa, begirunea baino gehiago barregura edo beldurra sortzen duen ezkontza. *Guraso homosexualak osatutako familiak benetan onartzeko erronka du bai gizarteak, bai eta gayek eta lesbianek ere, orain onartzen zaien eskubidea bereganatu eta horren subjektu aktibo modura jardun behar baitute.*

\* Euskal Autonomia Erkidegoan, ama biologikoa ez denak aukera du umea adoptatzeko, Izatezko Bikoteen Legeari jarraituz.

## **Homosexualitatea eta familia**

Atal honetan aztertu nahi dugu nola gizatalde jakin batzuek, kasu honetan gay eta lesbianek, gizarteak familiarekiko zituen balore eta jarrerak aldarazi dituzten azken hogeita hamar urteotan.

Denbora luzez, kontrajarritako errealitate bailiran begiratu die gizarteak homosexualitateari eta familiari, errealitate bateraezinak, antagonikoak. Bazegoen (eta egun ere badago, indar txikiagoa badu ere) halako uste bat zeinaren arabera gay edo lesbiana denak ez baitu tokirik familiaren baitan, zeinaren arabera haren patua ez baita inolaz ere familia bat sortzea.

Egun, familia dibertsifikatu egin dela esan dezakegu, familia-eredu berriak deitzen ditugun horiek lekuko; baina, horrez gain, uste dugu familia indartu egin dela pertsona gay eta lesbianen artean. Argi islatzen da hori lesbianek amatasunari begiratzeko moduan edo homosexualitatea ingurukoei ezagutarazteko orduan.

### *Lesbianen amatasuna*

Lesbianismoa eta amatasuna, tradizioz, halako kontraesan baten barruan ulertu izan ditu gizarteak; batetik, ama izatea, nolabait, genero espektatiba konbentzionalekin bat etortzea da eta beraz, emakumeak diren heinean, lesbianek seme-alabak izan beharko lituzkete; baina, beste alde batetik, homosexualitatearekin lotutako estigma dela eta, harreman lesbikoak antzutzat jo izan dira, eta beraz lesbianak uko egin beharko lioke ama izateari. Gizarte-kontraesan horren ondorioz,

urte askoan, amatasuna ez da lesbianen espektatiba edo egitasmoetan sartu eta umeak izan nahi zituen lesbianak uko egin behar zion bere homosexualitateari eta harreman heterosexual baten baitan sortu ondorengoak. Lesbiana asko ez ziren ausartzen ama izateko aukera planteatzera, ez zieten euren buruei umeak izateko eskubiderik onartzen, amatasuna eta lesbianismoa bateraezinak zirela sinesten baitzuten haiek ere.

Egoera hori aldatu egin da gaur egun, lesbiana askok umeak izateko eskubidea dutela sinisten dute, eta euren bikotearekin batera eraman nahi dute aurrera proiektu hori. Lesbiana belaunaldi berriek ondo integraturik dute amatasuna euren etorkizun planetan.

### *Homosexualitatearen berri eman ingurukoei*

Puntu honetan, alde handia dago lehengo eta egungo gay eta lesbianen artean. Gazteenentzat pentsaezina da homosexuala izatea eta homosexual modura bizitzea gurasoei joera sexual hori dutela agertu gabe. Beren garapen pertsonalerako oztopoa eta familiarekiko traizioa edo engainua da haienentzat homosexualitatea ezkatzea. Lehenagoko gay eta lesbianek ordea, beste modu batera bizi izan dute homosexualitatea ingurukoei jakinaraztearena: ondo asko bizi daiteke hori aitortu gabe, kontraesanak gora behera, norberaren bizi-esperientzia ez dago horren menpe.

Zergatik geratzen dira alde horiek lehengo eta egungo gay eta lesbianen artean? Bi hipotesi planteatu daitezke horri erantzuteko, familiaren baitan eta gay eta lesbianen kolektiboen baitan izandako aldaketekin lotuak.

*Bat:* Gay eta lesbiana gazteek bizi duten familia-egoera guztiz desberdina da. Gehienak ondo etortzen dira gurasoekin eta haien familiek sortutako ingurune afektibo eta emoziozkoa guztiz desberdina da lehenagoko belaunaldienarekin erkatuta.

*Bi:* Homosexualak biltzeko tokiak (*ambientea* esaten zitzaiena) gay eta lesbianak elkartu eta lotura emozional eta afektibo sendoak sortzeko guneak ziren: neurri batean, familiaren ordezkioak eta homosexualen garapen eta hazkunde pertsonalerako lagungarriak. Gaur egun, indarra galdu dute lotura horiek eta familiak esparru zabalagoa hartu du.

### **Azken gogoetak**

Familia-ereduen bilakaerak ez du azken gaina jo bikote homosexualak sortutako familiekin. Eraldatzen eta garatzen segituko du familiak, beti ere familia horiek osatzen ditugunon behar aldakorrei egokituz.

Nolanahi ere, badira oraindik zuzendu beharreko alorrak; besteak beste, adibide batzuk ematearren:

- Eskubide berberak eman beharko zaizkie izatezko familiei eta ezkontza bidez osatutakoei. Egun, Autonomia Erkidegoetan indarrean dauden Izatezko Bikoteen Lege guztiak bateratuko dituen Izatezko Bikoteen Legea behar da.
- *Alokatutako amak*. Gure herrian ez dago horri buruzko legeriarik, baina bada garaia horren inguruan gogoeta egin eta legeak onartzeko.
- Ume berarengan biltzen diren amatasun eta aitatasun bikoitzak, hau da, gay bikote batek eta lesbiana bikote batek batera aita eta ama izatea erabakitzen dutenean gertatzen den. Aukera hori agertu da jadanik beste herrialde batzuetan eta gurean ere gertatu egingo da. Kontua zera da, posiblea izango al da ume batek bi ama eta bi aita izatea?

*Eztabaida eta erronka interesgarriak planteatu ditu familiak azken hiru hamarkadatan eta horrela izango da datozen urteotan ere.*

***ALDARTEn dagoen Ama Lesbianen Taldean parte hartzen duen emakumezko bikote batek azaldutako gertakizun bat agertu nahi izan dugu Koaderno honetan; eurak eta Afrika beren alabak egun arrunt batean bizi izandakoari buruzkoa da eta familia berrien eguneroko egoerak azalerazteak familia horien normalizazioan lagunduko duelakoan gaude.***

Pasa den udan, oporretan, txinbotan jolasean ginela 10 hilabeteko Afrika gure alabarekin, 9 bat urteko neskatila bat hurbildu zitzaigun eta lagunak ote ginen galdetu zigun. Bikotea ginela erantzun genion. Gero, Afrika noren alaba zen galdetu zigun. Biona, erantzun genion. Neskatila harritu egin zen eta esan zigun ez zekiela bi emakumek umerik izan zezaketenekin. Orduan azaldu genion Nerea izan zela haurdun gelditu zena, eta zehaztasun gehiago jakin nahi zituenez, gauek ere seme-alabak izan nahi genituela azaldu genion, eta horretarako hazia behar genuenez –eta hazi ona-, klinika batera jo genuela, umeak izateko zailtasunak dituen edozein bikotek egiten duen moduan. Neskatilari guztiz logikoa eta arrazoizkoa iruditu zitzaion.

Horrela, erraz-erraz. Eta horrelaxe bizi izan genuen haurdunaldia ere, aldi bertsuan guraso izango ziren gainerako auzokoekin kezka eta poz berdintsuak elkar trukatzuz hasieratik bertatik. Beste bikote batzuekiko alderdik ikusten ote dugun galdetuko baligute, agian interesgarria litzateke aurreko batean auzoko batek esandakoari arreta ematea: “Umea ekartzeak iraultza sortarazten du bikotearen baitan, zuek oraintxe ezkonduko zarete, eta niri batzutan dibortziatzeko gogoa ematen dit”. Auzoko aita eta ama gehiagok ere partekatzen duten sentsazio bitxia da hori.

Komentario horren harian, esan behar dugu hasieratik –eta batzuetan nolabaiteko inbidiaz- ikusi gaituztela biak, maila berean, Afrikaren zaintzaren arduradun eta partaide. Eta, izan ere, horrela izan da. Umeak, batez ere Nereak bularra emateari utzi zionetik (Afrikak 4 hilabete zuela), gutako edozeinengana jotzen du zerbait behar duenean. Hobe esanda, kasu batzuetan bat eta beste batzuetan bestea bilatzen du, nahi duenaren arabera. Esaterako, ni (Mummy) naizenez gehienetan jaten

ematen diona eta kantatzen eta ipuinak kontatzen diona, neu bilatzen nau gose denean edo kontsolamendua bilatzen duenean; Nerearengana (Ama) jotzen du, ordea, bihurrikeriak egin nahi dituenean, harekin ematen baititu jolas ordu gehienak. Argi uzten du horrek, beste alde batetik, topikoa ez dela egiazkoa, hau da, munduratu zintuen amarekin lotzen zaituen lotura gaindiezina delako mitoa; zenbait aitek horri eusten badiote ere erantzukizun berbera ez izateko. Gure esperientziak adierazi digun konturik garrantzitsuenetakoa da hori.

Gainerakoan, administrazio tramite askotan lehenak izatea dugu berritasun nagusia: ezkontzea, adoptatzea, familia liburua aldatzea eta, batzuetan, formulario zaharkituak nola bete ez dakien funtzionarioarekin topo egitea. Onena da kontu hauek aurrera egiten dutela beti eta ondoren datozenentzat –bai eta Afrikaren balizko neba-arrebarentzat- gauzak errazagoak izango dira. Hala dira eta gauzak.

*Nerea, Cristina eta Afrika.*

## **BIBLIOGRAFÍA**

Castañeda Marina: *La experiencia homosexual. Para comprender la homosexualidad desde dentro y desde fuera*. Editorial Paidós 1999

Simonis Angie (comp.): *Educar en la diversidad*. Editorial Alertes 2005

Herd Gilbert, Koff Bruce: *Gestión familiar de la homosexualidad*. Edicions Bellaterra 2002

Weston Kath: *Las familias que elegimos. Lesbians, gays y parentesco*. Edicions Bellaterra 2003

Cadoret Anne: *Padres como los demás. Homosexualidad y parentesco*. Editorial Gedisa 2003

Gonzalez, M<sup>a</sup> del Mar eta taldea: *El desarrollo infantil y adolescente en familias homoparentales. Informe preliminar*. Universidad de Sevilla. Departamento de Psicología Evolutiva y de la Educación 2002